

OLENTZERO 07

HATOR HATOR

Hator hator mutil etxera
 gaztaina zimelak jatera
 Gabon gaua ospatutzeko
 aitaren ta amaren ondoan.
 Ikusiko duk aita barrezka
 amaren poz atseginez.
 Eragiok mutil
 aurreko danbolinari
 Gaztainak erre artean
 gaztainak erre artean
 Txipli txapla pum
 Gabon gaua pozik igaro dezagun.




MELLI

Alai.
 Poztu gaitzen
 gaurko gabarekin
 Gure Jesus onaren etorrerarekin
 Alai.


OLENTZERO JOAN ZAIGU

Olentzero joan zaigu
 mendira lanera
 intentzioarekin
 ikatz egitera.
 Aditu duanian
 Jesus jaio dala,
 laisterka etorri da,
 berri ematera.



FERNANDO

Bis { Behartsu asko ditugu
 azaltzako Jaun-Haurrari
 Nola, nola aurkitu duzu
 Euskal Herri maite hau
 Erantzun bat nahi dugu entzun
 gure bihotz barruan
 Euskaldunen artean
 zu on-hartua zara
 batean esaten dizugu
 ongi-etorri gure Herrira



ERREFUXIATUAK

Bis { Alkar egiten dugu
 askatasunaren bidea
 Nola, nola aurkitu duzu ...

Horra, horra,
 gure Olentzero,
 pipa ortzian dula
 eserita dago,
 kapoiak ere baitu
 arrautzatxuakin
 bihar meriendatzeko
 botila ardoakin (berriz)

Olentzero buru handia
 entendimentuz jantzia
 bart arratsean edan omen du
 hamar arruko zagia
 Ai urde tripa handia Tra la ra la ...
 Ai urde tripa handia Tra la ra la ...

Olentzero begi gorri
 non harrapatu dek arrain hori
 itsasoko harkaitzetan
 bart arratseko hamaiketan.

Alaitu ta poztu gaitzen
 gaurko gabarekin
 Gure Jesus onaren etorrerarekin.

ONGI-ETORRIA

Alkartu gaitzen gaur
 gertatu honen inguruan
 bihotzez hartu dezagun
 herri salbatzailea

GU GAZTEOK

Gu gazteok, hemen gatoz
 kanta berri bat abestuz,
 Jesus jaio berriari
 notizi pozgarriari.

Bera jaio zan txabolan
 behi ta ardi tartean,
 mixeri gorri-gorrian
 gau erdiko ilunpean.

Gero ama ta aita utzirik
 alde egin zuen etxetik
 bere herriarengatik
 mundua esnatu nahirik.

Pakearen zale bait zen
 laguntzeko beti zan prest
 justizia zuen maite
 aberastasunik gabe.

GABEKO IZAR

1.—

Gabeke izar argitsuena
piztutzeakin batera
haurtxo eder bat etorri zaigu
gaur arratsean etxera.
Ordu ezkeroz etxeko denak
poztu ta zoratzten gera,
Haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera

2.—

Alai ta pozik kanta dezagun
Haurtxo honen etorrera,
gure iluna alaitutzeko
jaio den argi ederra.
Gaurtik aurrera atzerri hontan
zoriekoak gera
Haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera.
Musika; Herrikoia
Hitzak: Herrikoia

HAUR EDER

1.—

Haur eder baten bila
gabiltza zoratzten
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen
JAUNGOIKOAREN HERRI
MAITE JERUSALEN
AITOR ZAIGUZU LAISTER
JESUS NON JAIO DEN

GABON GAUA

Haurtxo maite
nola zaude?
saskan negarrez
Hatoz, bai, nire bihotzera.
Hatoz, bai, lo-lo egitera.
Abesti maitalez.
Abesti maitalez.

ALAKEN

Alaken, alaken,
ala pikula tum paire,
errespun dela pikula tunpa,
Jesus Maria Jainkoa zen.
Adiskideok!
ikusiduzute zela horietan artzaina,
artzain txiki,
artzain handi,
artzain mutur leuna.
Lo leri leo,
goxo duk goxo,
neguan etxe txokoa.
Gaur jaio da, gaur,
Jesus haurtxoa.
Lo leri leo,
hiru errege
izar baten arrastoan,
lo leri leo,
tranka, trankatran,
hirurak zaldiz badoaz.

16. HEGOAK

Hegoak ebaki ba nizkio
nere izango da
ez zuen alde egingo (ber)

Bainon horrela,
ez zen gehiago txoria izango (ber)
Eta nik txoria nuen maite (ber)

MESIAS

Mesias sarritan agindu zana
aingeru artean dator gugana
Gloria zeruan, pakea hemen.
kantari aingeruak: datoz Belenen.

- 1.— Altza begiak zapaldu orok
deiadarra lagunari,
berriro izanen gaituk kide
indar emanaz iraultzari.
Kalera kalera borrokalari kalera
kalera kalera borrokalari kalera
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera,
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera.
Zai dago ama, zai aita,
zai andre ta lagunak, bis
hator, hator Euskadira,
hator, hator etxera.
- 2.—Ezin gure oihuak isildu,
ezin gaituzte zapaldu,
lagunak non diren badakigu,
herria oihuka daukagu.
Kalera....
Zai...
- 3.—Bultza ta bultza euskal langile,
Euskal Herri sufritua,
Burni kateak euskal labetan,
DANBAI DANBAI lurrera kartzolak!
Kalera...
Zai...
- 4.— Luza eskuak indarririk baduk
jeikitzeke garaia da,
herri guztia zu n zai dago
denok eskuz esku lotuta.
Kalera...
Zai...